

# Aprilak 28: Lan arloko, gizarte eta ingurugiroaren osasuna gizaki ooren eskubide.

**Langileon osasunaren defentsa** lehentasuna duen gaia da LKNrentzat. Lan istripu eta gaixotasun profesionali buruz 2010. urtean zehar bildutako datuenganako oinarritzko hurbilketa bat eginez, beheranzko joera azaleratzen dute 2009. urtearekin alderatuta.

Ala eta guztiz ere, krisiaren eragin ezkorrak hobeki ulertzeko, kontutan hartzekoak diren bestelako adierazgarriak egon ba daude.

- **Bajarik gabeko lan istripuak gehitu dira**, nondik lan merkatuaren koiuntura dela eta, langileak lantokietara osasun egoera kaxkarretan doazela ulertu liteke.
- Aldi berean azpimarragarria da **nola istripuak adineko langileek pairatzen dituzten batez ere**, eta honek, datorkigun erretiroaren atzerapena aintzat hartuta ez digu deus ere onik iragartzen.

**Sistema kapitalistarentzat**, langileon osasuna ez du etekinak lortzea bezain beste garrantzirik. Kapitalismoarekin, **eredu energetikoa** transnazional gutxi batzuen eskuetan dago, eta hauek, giza baliabide eta baliabide naturalen amairik gabeko ustiaketan oinarritzen den **eredu produktiboa** elikatzen dute, eta honek zabaltzen duen **kontsumo ereduak** xahutzen dituen baliabideak, planetak leheneratu ditzazkenak baino askoz gehiago dira.

Petrolio, kapitalismoaren energia iturri garrantzitsua den heinean, aldaketa klimatikoaren eta planetan bizi diren gatazka armatu askoren arduradun zuzena da. **Fukushimako dramak erakusten duen bezala**, petrolioaren agortzea dela eta **Energia nuklearra** alternatiba bezala planteatzea, ingurugiroaren eta gizateriaren genozidioa areagotzea besterik ez du lortuko.

**Lan, gizarte eta ingurugiroaren osasunarentzako** ondorioak, nabarmenki okertu dira munduko biztanleriaren bi herenentzat: klima aldaketa, galtzen diren bizimoduak, elikadura-subiranotasunarentzako mehatxua, lan, gizarte eta ingurugiroaren eritasunak lanaren baldintzen okertzearen ondorioz eta kapital finantzieroaren eta produktiboaren zerbitzuan jarri diren aurrerapen teknologikoen kontrolik gabeko hedapenaren ondorioz.

**Lan arloko osasuna**, gizarte eta ingurugiroaren osasunaren oinarritzko zatia da. Ez baldin ba ditugu urrats sendoak ematen, hemen eta orain, bestelako eredu energetiko baten alde, eta ondorioz bestelako produkzio nahiz kontsumo eredu bat lortzeko bidean, ezin izango dugu gaur egun dugun osasunaren hondatzea saihestu, eta datozen belaunaldiak pairatuko duten osasun maila baxuaren arduradunak izango gara.

Bizimodu osasuntsu eta armoniatsua guztiontzat, planetan bizi garen izaki ororentzat eta bihar biziko direnentzat lortzeko bide bakarra, eredu produktibo, energetiko eta kontsumo ereduaren sakoneko aldaketa gauzatzean datza. Osasuna, lana, zaintza, askatasunean oinarritutako hartu-emanak, aisialdi sortzailea... gai guzti hauen inguruan, gizarte mailako eztabaida zabala behar beharrezkoa da.

**Lan arloko, gizarte eta ingurugiroaren Osasuna gizaki ooren eskubidea da.  
Aldarrikatu eta borroka dezagun.**

---